8. En lo referente a dietas, desplazamientos y alojamientos, no se considerarán subvencionables las dietas, desplazamientos y alojamiento, en lo que excedan a los fijados como exentos para la categoría equivalente fijada por la normativa del IRPF. Dichos gastos se justificarán aportando las facturas y/o los oportunos recibos o documentos firmados por el responsable, por el importe de las dietas percibidas donde conste claramente el nombre del perceptor y concepto.

cve: BAO-BOB-2011a139

9. Bestalde, alokairu kontratuei dagokienez, alokairu kontratuaren kopia konpultsatua eta horregatik sortutako kopuruen ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako jatorrizko justifikagiriak zigilu batez markatuko dira, eta zein diru laguntza justifikatzeko aurkeztu diren eta justifikagiriaren kopurua diru laguntzari osorik ala zati batean dagokion adieraziko da, eta, zati batean bada, diru laguntzak eragiten dion kopuru zehatza adieraziko da gainera.

Diru laguntza egiaztatzeko eskumena duen organoak konpondu daitezkeen akatsak nabaritzen baditu onuradunaren justifikazioan, jakinarazi egingo dio eta hamar eguneko epea emango, zuzentzeko.

**19. artikulua.—*Justifikazio epea luzatzea***

1. Organo emaileak, oinarri arautzaileek kontrakoa ezarri ezean, justifikazioa aurkezteko epearen luzapena eman ahal izango du, haren erdia gainditu gabe eta hirugarrenen eskubideei kalte egiten ez bazaie.

2. Epea luzatzeko prozedura ofizioz edo onuradunaren eskariz hasi ahal izango da. Justifikazioaldia luzatzeko erabakia interesdunei jakinarazi beharko zaie eta ezingo zaio errekurtsorik jarri.

3. Baimendutako gehienezko denboraz, epeak beti luzatuko dira kasu hauetan:

— Kontsulgo bulegoetatik edo atzerrian bideratutako prozeduretan.

— Zaratamon bideratutakoak, atzerrian izapideren bat behar badute edo Espainiatik kanpora bizi diren interesdunek parte hartzen badute.

4. Luzatzeko eskabidea eta erabakia, delako epea amaitu baino lehen hartu beharko dira.

5. Luzapen epea amaitutakoan, organo emaileak onuradunari errekerimendua egingo dio 15 astegunetan justifikazioa aurkez dezan. Epe horretan justifikaziorik aurkeztu ezean, jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira eta ordenantza honetan eta DLLOan ezartzen diren erantzukizunak eskatuko dira.

SEIGARREN KAPITULUA

**DIRU LAGUNTZAK ITZULTZEA**

**20. artikulua.—*Itzuli beharreko kasuak***

Diru laguntza Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62 eta 63. artikuluetan jasotzen diren deuseztasun edo deuseztagarritasun akatsetariko batekin eman bada gorabehera, jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira eta legezko berandutza interesa eskatu beharko da, kasu hauetan:

a) Diru laguntzarako eskatzen diren baldintzak faltsututa edo lortzea eragotziko zutenak ezkutatuta lortuaz gero.

b) Diru laguntza ematea oinarritzen duen helburua, ekintza edo egitasmoa bete ezean edo jokabidea jarraitu ezean, batere edo zati batean. Zati batean bete ezean, eta modu esanguratsuan hurbiltzen bada osorik betetzera, bete gabekoaren proportziokoa izango da itzuli beharreko kopurua.

c) Justifikatu beharra bete ezean edo nahikoa justifikatu ezean, diru laguntza arautzeko arauetan ezarritakoaren arabera.

d) Finantza egiaztapen eta kontroleko jarduerei gogor egin, aitzakia jarri, oztopoa jarri edo ezetz esanaz gero, eta kontabilitate, erregistro edo agirizaintza eginbeharrak bete ezean, baldin, horren ondorioz, jaso diren funtsak zertarako erabili diren, helburua bete den, diruz lagundutako jarduerak egin diren eta erregularrak izan diren edo edozein administraziotatik edo erakunde publiko edo pribatutatik, nazionala, Europar Batasunekoa nahiz nazioarteko erakundeetakoa izan, helburu bererako diru laguntzak, eskuarteak, sarrerak edo baliabideak jaso dituen egiaztatzerik ez badago.

9. Por otro lado, en lo que se refiere a contratos de arrendamiento, será necesaria la presentación de copia compulsada del contrato de arrendamiento y recibos de las cantidades devengadas en tal concepto.

Los justificantes originales presentados se marcarán con una estampilla indicando en la misma subvención para cuya justificación han sido presentadas y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención y en este último caso se indicará además la cuantía exacta que resulte afectada por la subvención.

Cuando el órgano competente para la comprobación de la subvención aprecie la existencia de defectos subsanables en la justificación del beneficiario, lo pondrá en su conocimiento concediéndole un plazo de diez días para su corrección.

**Artículo 19.—*Ampliación del plazo de justificación***

1. El órgano concedente podrá otorgar, salvo que las bases reguladoras establezcan lo contrario, una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación, que no exceda de la mitad del mismo y siempre que con ello no se perjudiquen derechos de terceros.

2. El procedimiento para la ampliación del plazo podrá iniciarse de oficio o a petición del beneficiario. El acuerdo de ampliación de la justificación deberá ser notificado a los interesados y no podrá ser recurrido.

3. La ampliación de los plazos por el tiempo máximo permitido se aplicará en todo caso a:

— Procedimientos tramitados a través de oficinas consulares o en el extranjero.

— Aquellos tramitados en Zaratamo que exijan algún trámite en el extranjero, o que intervengan interesados residentes fuera de España.

4. La solicitud y el acuerdo de ampliación deberán presentarse antes del vencimiento del plazo de que se trate.

5. Transcurrido el plazo de ampliación el órgano concedente requerirá al beneficiario para que en 15 días hábiles presente la justificación. La falta de presentación de la justificación en el citado plazo acarreará el reintegro de las cantidades percibidas y demás responsabilidades establecidas en la presente Ordenanza y en la LGS.

CAPÍTULO SEXTO

**REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES**

**Artículo 20.—*Supuestos de reintegro***

Sin perjuicio de aquellos supuestos en los que la concesión de la subvención incurra en alguno de los vicios de nulidad o anulabilidad recogidos en los artículos 62 y 63 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés legal de demora en los siguientes casos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención. En caso de incumplimiento parcial, y se aproxime de modo significativo al cumplimiento total, la cantidad a reintegrar será proporcional al incumplimiento.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en las normas reguladoras de la subvención.

d) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

cve: BAO-BOB-2011a139

e) Xedearen benetako kostuarekiko gehiegizko finantzaketa izanaz gero, gehiegizko hori itzuli beharko da.

f) Diru laguntza emateagatik onuradunei ezarritako eginbeharrak eta horiek hartutako konpromisoak bete ezean, diru laguntza ematea oinarritzen duten helburuak lortzeko, ekintza egiteko, egitasmoa egikaritzeko edo jokabidea jarraitzeko modua eta epeari eragiten badiete edo horien ingurukoa bada.

g) Araudi arautzailean aurreikusten diren gainerako kasuetan.

### 21. artikulua.—*Itzultzeko dosierra*

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko sarreraren izaera du, eta, horren ondorioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta Zaratamoko Udalaren Kudeaketa, Diru Bilketa eta Ikuskapeneko Udal Ordenantza aplikatu behar dira.

Nolanahi ere, prozeduraren izapideak egiterakoan onuradunaren eskubidea bermatuko da, entzuna izateko eta bere jarduera aldezteko behar dituen alegazioak egiteko.

Itzulketa eskatzen duen ebazpena diru laguntza eman zuen organo berak hartuko du, eskatu beharra justifikatuta eta itzuli behar den kopurua eta borondatez itzultzeko epea adierazita, eta ohartarazi egingo zaio epe horretan itzuli ezean hertsadura bideari ekingo zaiola.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

## DIRU LAGUNTZAK KONTROLATZEKO ARAUBIDEA

### 22. artikulua.—*Kontrol eskumena eta helburua*

1. Zaratamoko Udalak udal kontu-hartzailetzaren bitartez egikarituko ditu kontu-hartzearen eta finantza kontrolaren eginkizunak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari izendatutako eginkizunen mendean.

2. Kontu-hartze eginkizunaren xedea, ordenantza honetan ezartzen den araudiaren arabera, Udalak ematen dituen diru laguntzak kontrolatzea da, indarrean dagoen legedia betetzen dela egiaztatzeko. Eginkizun hori, batez ere, baliabide hauek erabilita garatuko da:

— Diru laguntza emateko agiri edo dosierraren aurretiazko fiskalizazioa.

— Ordaintzeko aginduaren kontu-hartze formala.

— Ordainketaren kontu-hartzea.

— Emandako diru xedapenaren aplikazio edo erabileraren kontu-hartzea.

3. Finantza kontrolaren xedea hauek egiaztatzea da:

— Onuradunak diru laguntza egoki eta zuzen lortu duela.

— Onuradunek eta erakunde laguntzaileek diru laguntzaren kudeaketan eta aplikazioan euren eginbeharrak bete dituztela.

— Onuradunek eta erakunde laguntzaileek diru laguntza egoki eta zuzen justifikatu dutela.

— Diru laguntzaz finantzatu diren operazioak egin direla eta erregularrak izan direla, onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako justifikazioaren arabera.

— Diruz lagundutako jarduerak egoki eta zuzen finantzatu direla.

— Onuradunek eta erakunde laguntzaileek administrazioari adierazi ez dizkioten egitateak, inguruabarrak edo egoerak ote dauden, hau da, diruz lagundutako jarduerei, diru laguntza egoki eta zuzen lortu, erabili, gozatu edo justifikatzeari eta diru laguntzarekin finantzatutako operazioen errealitateari eta erregulartasunari eragin diezaieketenak, hain zuzen, ote dauden.

e) Exceso de financiación con relación al coste real del objeto, debiendo reintegrarse dicho exceso.

f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas a los beneficiarios, así como de los compromisos por éstos asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo y plazo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

g) En los demás supuestos previstos en la normativa reguladora.

### Artículo 21.—*Expediente de reintegro*

La cantidad a reintegrar tiene la naturaleza de ingreso de derecho público, lo cual genera que a estos efectos sea de aplicación la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia y la Ordenanza Municipal de Gestión, Recaudación, e Inspección del Ayuntamiento de Zaratamo o en su caso el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia.

En todo caso, se garantizará en la tramitación del procedimiento el derecho del beneficiario a ser oído y formular las alegaciones pertinentes para defender su actuación.

La resolución por la que se exija el reintegro se dictará por el mismo órgano que concedió la subvención justificando su exigencia y señalando la cuantía que ha de devolverse así como el plazo voluntario de ingreso, con advertencia de que si no se efectúa dentro del mismo, se procederá a iniciar la vía de apremio.

CAPÍTULO SÉPTIMO

## RÉGIMEN DE CONTROL DE LAS SUBVENCIONES

### Artículo 22.—*Competencia y finalidad del control*

1. El Ayuntamiento de Zaratamo ejercerá la función de intervención y control financiero de las subvenciones que otorgue por medio de la Intervención Municipal, sin perjuicio de las funciones atribuidas al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

2. La función interventora, de acuerdo con la regulación establecida a lo largo de la presente Ordenanza, tiene como objeto controlar las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento, para verificar el cumplimiento de la legalidad vigente. Principalmente, este objetivo se desarrollará mediante:

— La fiscalización previa del documento o expediente de concesión de la subvención.

— La intervención formal de la ordenación del pago.

— La intervención de la realización del pago.

— La intervención de la aplicación o empleo de la disposición dineraria otorgada.

3. El objeto del control financiero es verificar:

— La adecuada y correcta obtención de la subvención por parte del beneficiario.

— El cumplimiento por parte de beneficiarios y entidades colaboradoras de sus obligaciones en la gestión y aplicación de la subvención.

— La adecuada y correcta justificación de la subvención por parte de beneficiarios y entidades colaboradoras.

— La realidad y la regularidad de las operaciones que, de acuerdo con la justificación presentada por beneficiarios, han sido financiadas con la subvención.

— La adecuada y correcta financiación de las actividades subvencionadas.

— La existencia de hechos, circunstancias o situaciones no declaradas a la Administración por beneficiarios que pudieran afectar a la financiación de las actividades subvencionadas, a la adecuada y correcta obtención, utilización, disfrute o justificación de la subvención, así como a la realidad y regularidad de las operaciones con ella financiadas.

cve: BAO-BOB-2011a139

**23. artikulua.—*Finantza kontrolaren prozedura***

Zaratamoko Udalak auditore lanen edo bestelako kontrol tekniken bidez gauzatuko du finantza kontrola, herri administraziorako auditoretza arauetan xedatutakoaren arabera.

Jardueren hasiera onuradunei eta erakunde laguntzaileei jakinarazita hasiko da, eta jakinarazpenaren ezaugarri guztiak adieraziko dira. Onuradunen eta, kasua bada, erakunde laguntzaileen gaineko finantza kontroleko jarduerak gehienez 12 hilabeteko epean amaitu beharko dira jarduera horiek hasten direla haiei jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasita.

Onuradunen eta, kasua bada, erakunde laguntzaileen gaineko finantza kontroleko jarduerak agerian geratu diren egitateak eta horietatik ateratzen diren ondorioak jasotzen dituzten banako txostenak idatzita amaituko dira. Hasteko, behin-behineko txostena bidaliko zaie erakunde laguntzaileei eta onuradunei 15 eguneko epean alegazioak egin ahal ditzaten. Ondoren behin betiko txostena bidaliko zaio diru laguntza eman zuen organoari, eta, Kontu-hartzailetzak egindako txostenean diru laguntza guztia edo zati bat itzuli behar dela jasotzen bada, organo kudeatzaileak itzultzeko dosierra hasteko erabaki beharko du, txosten horretan oinarrituta eta hilabeteko epean.

**24. artikulua.—*Diru laguntzaren baldintzak eraldatzea***

Diru laguntzaren onuradunak diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak eraldatu direla ohartarazten badu justifikazioan, baina diru laguntzaren izaera eta helburuak funtsean eraldatu gabe ebazpena aldarazi ahal izateraino, ebazpena onartzeko aurretiazko administrazio baimenaren izapidea egin ez delarik, diru laguntzaren organo emaileak aurkeztu den justifikazioa onetsi ahal izango du, onespen horrek hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

**ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

**25. artikulua.—*Arau hausteak eta zehapenak***

Arau hauste eta zehapenei dagokienez, Diru Laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. Tituluan (52. artikuluan eta hurrengoetan) xedatutakoa eta gai hori arautzen duen gainerako legedia beteko da.

**26. artikulua.—*Prozedura***

Diru laguntzen arloko zehapenak administrazio dosierraren bidez ezarriko dira, interesdunari entzunaldia emango zaio beti, dagokion erabakia hartu aurretik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean eta Legea garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluko II. kapituluan xedatutakoaren arabera bideratuko da dosierra.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da kobratzerakoan zuzenbide publikoko sarrera dela, eta horregatik, ondorio hauetarako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua eta Zaratamoko Udalaren Kudeaketa, Diru Bilketa eta Ikuskapeneko Udal Ordenantza aplikatu behar dira.

Prozedura ofizioz hasiko du alkateak (eskumen hori eskuordetzan ematen ez badu), Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 n artikuluan jasotakoaren arabera, organo emaileak edo erakunde laguntzaileak egindako egiaztatze jardueraren eta lege horretan jasotzen diren finantza kontroleko jardueren ondorio gisa.

Zehapena ezartzeko erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote.

**Artículo 23.—*Procedimiento de control financiero***

El Ayuntamiento de Zaratamo, ejercerá el control financiero mediante auditorías u otras técnicas de control de acuerdo con lo previsto en las normas de auditoria para la Administración Pública.

El inicio de las actuaciones se efectuará mediante la notificación a los beneficiarios y a las entidades colaboradoras indicándose todos los extremos a ella referidos. Las actuaciones de control financiero sobre beneficiarios y, en su caso, entidades colaboradoras, deberán concluir en el plazo máximo de 12 meses a contar desde la fecha de notificación a aquéllos del inicio de las mismas.

Las actuaciones de control financiero sobre beneficiarios y, en su caso, entidades colaboradoras finalizarán con la emisión de los correspondientes informes comprensivos de los hechos puestos de manifiesto y de las conclusiones que de ellos se deriven. Inicialmente, se remitirá un informe provisional a las entidades colaboradoras y a los beneficiarios para permitirles emitir alegaciones en un plazo de 15 días. Posteriormente un informe definitivo se remitirá al órgano que concedió la subvención y en caso de que el informe emitido por la Intervención recoja la procedencia de reintegrar la totalidad o parte de la subvención, el órgano gestor deberá acordar, con base en el referido informe y en el plazo de un mes, el inicio del expediente de reintegro.

**Artículo 24.—*Alteración de las condiciones de la subvención***

Cuando el beneficiario de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma, que no alteren esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención, que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

CAPÍTULO OCTAVO

**INFRACCIONES Y SANCIONES**

**Artículo 25.—*Infracciones y sanciones***

En lo que a las infracciones y sanciones se refiere se estará a lo dispuesto en el Título IV (los artículos 52 y siguientes) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás legislación que regule dicha materia.

**Artículo 26.—*Procedimiento***

La imposición de las sanciones en materia de subvenciones se efectuará mediante expediente administrativo en el que, en todo caso, se dará audiencia al interesado antes de dictarse el acuerdo correspondiente y que será tramitado conforme a lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco, así como en sus respectivas normas de desarrollo y a lo dispuesto en el capítulo II del Título IX de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En cualquier caso, ha de tenerse en cuenta para su cobro su consideración como ingreso de derecho público, lo cual genera que a estos efectos sea de aplicación la Norma Foral 10/2003, De 2 de diciembre, Presupuestaria de Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia y la Ordenanza Municipal de Gestión, Recaudación, e Inspección del Ayuntamiento de Zaratamo.

El procedimiento se iniciará de oficio, por el Alcalde del Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en el artículo 21.1 n de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local 7/1985, de 2 de Abril, (salvo delegación de dicha competencia) como consecuencia, de la actuación de comprobación desarrollada por el órgano concedente o por la entidad colaboradora, así como de las actuaciones de control financiero previstas en esta Ley.

Los acuerdos de imposición de sanciones pondrán fin a la vía administrativa.

cve: BAO-BOB-2011a139

XEDAPEN GEHIGARRIA

Diru laguntzen berariazko oinarri arautzaileetan ezarritakoa salbu, kasua bada, ordenantza hau Zaratamoko Udalak ematen dituen diru laguntzetan aplikatuko da.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Ordenantza indarrean egon aurretik hasitako prozeduretan, hasi zenean indarrean zegoen araudia aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hamabost egun igarotakoan hasiko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

I. ERANSKINA

**UDALAREN DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA**

— Eskatzailearen izen-abizenak: .........................................
— NAN: .........................................................................................
— Jakinarazpenak egiteko helbidea: ...................................
— Herria: ............................................................................
— Telefonoa: ........................................................................
☐ Norbere izenean jarduten ari naiz.
☐ Erakunde baten ordezkari moduan jarduten ari naiz.

**Eskatzailea pertsona juridikoa izan ezkero bakarrik bete**

— Erakunde eskatzailearen izena: .......................................
— IFK: ..................................................................................
— Jakinarazpenak egiteko helbidea: ...................................
— Herria: ............................................................................
— Telefonoa: ........................................................................
— Ordezkari legala: .............................................................

**Eskaeraren xedea**

☐ Konturako ordainketak eskatzen ditut.
☐ Aurretiazko ordainketa eskatzen dut.
— Eskaturiko diru laguntzaren zenbatekoa: .........................
Zaratamon, 20……ko ……………aren ……n

Aurkezlearen sinadura

*(Gurutze batekin marka itzazu aurkeztutako agiriak)*

**Identifikazio edo ordezkaritza ziurtatzeko pertsona fisikoek aurkeztu beharreko agiriak**

☐ Eskatzailearen NAN fotokopia.
☐ Errolda ziurtagiria.

**Identifikazio edo ordezkaritza ziurtatzeko pertsona fisikoek aurkeztu beharreko agiriak**

☐ IFK.
☐ Behar bezala eta dagokIon erregistro ofizialean inskribatutako organo eta ordazkarien izendapenaren akordioa.
☐ Inskribatutako estatutuak.
☐ Ordezkariaren NAN.

**Pertsona fisiko eta juridikoek aurkeztu beharreko agiriak**

☐ Eskatzaile pertsona fisiko edo erakundearen ordezkariaren zinpeko aitorpena, 38/2003 Diru laguntza Orokorren Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako onuradun iza-

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Salvo lo establecido por las Bases Reguladoras Específicas, en su caso, de las subvenciones, la presente Ordenanza será de aplicación en las subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Zaratamo.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En los procedimientos iniciados antes de la entrada en vigor de la Ordenanza será de aplicación la normativa vigente en el momento de su inicio.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor pasados quince días tras su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia», de conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local 7/1985, de 2 de abril.

ANEXO I

**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN MUNICIPAL**

— Nombre y apellidos del solicitante: .................................
— D.N.I.: ..............................................................................
— Domicilio a efecto de notificaciones: ...............................
— Municipio: ........................................................................
— Teléfono: ..........................................................................
☐ Actúo en nombre propio.
☐ Actúo en representación de una entidad.

**Rellenar el cuadro en el caso de que el/la solicitante sea una persona jurídica**

— Nombre de la entidad solicitante: ....................................
— C.I.F.: ..............................................................................
— Domicilio a efecto de notificaciones: ...............................
— Municipio: ........................................................................
— Teléfono: ..........................................................................
— Representante legal: .......................................................

**Objeto de la solicitud**

☐ Solicito pagos a cuenta.
☐ Solicito el pago anticipado.
— Cuantía solicitada: ..........................................................
En Zaratamo, a …… de …………… de ………..

Firma de la persona que presenta

*(Marque con una cruz la documentación aportada)*

**Documentación a aportar por las personas físicas para la acreditación DE LA identificación ola representación**

☐ Fotocopia del D.N.I. del solicitante.
☐ Certificado de empadronamiento.

**Documentación a aportar por las personas físicas para la acreditación DE LA identificación ola representación**

☐ C.I.F.
☐ Acuerdo de nombramiento de sus órganos y representantes, debidamente inscritos en su correspondiente registro oficial si lo hubiere.
☐ Estatutos, igualmente inscritos.
☐ D.N.I. del representante.

**Documentos a presentar por personas físicas y jurídicas**

☐ Declaración jurada del solicitante persona física o del representante legal de la entidad de no estar incurso en Causas de incompatibilidad con la condición de beneficiario del

cve: BAO-BOB-2011a139

teko bateraezintasun kasuetatik batean ere ez dagoela adierazten duena (II. eranskina).

- ☐ Diru laguntza lortzeko proiektua deskribatzen duen memoria.
- ☐ Diru laguntzaren xedearekin zerikusia duen jarduera edo proiektuaren kostua ziurtatzen duten ordainagiri eta ziurtagiriak.
- ☐ (Aurretiazko ordainketen kasuan) Jardueraren aurrekontu zehatz eta atalkakoa (III. eranskina).
- ☐ Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren betearazpena ziurtatzen duten agiriak (IV. eranskina, zinpeko adierazpenak balio badu).
- ☐ Helburu berdinarekin, beste nazio edo nazioarteko Administrazio edo erakunde publiko edo pribatuengandik jasotako diru laguntza edo laguntzen gaineko aitorpena (V. eranskina).

**Gastuaren kopuruak 30.000 euro gainditzen duenean, lana egiteko kostuaren kasuan, edo 12.000 euro gainditzen duenean, tresna ondasunen hornidurarен kasuan edo aholkularitza edo laguntza teknikoko zerbitzu prestazioaren kasuan behar den dokumentazioa**

- ☐ Lanen balioztapen txostena edo lan proiektua, kasua bada; hornitzaile ezberdinen hiru aurrekontu, eta justifikazioa merkeena hautatu ez bada.

II. ERANSKINA

**DIRU LAGUNTZAK JASOTZEKO BATERAEZINTASUNIK EZ DAUKANAREN ZINPEKO ADIERAZPENA**

Nik, ……………………………………… jaunak/andreak, DNI zk. …………………………………… eta jakinarazpenetarako helbidea ………………………………………………………………………….., (eskatzailea pertsona juridikoa denean betetzeko) ……………………………………….. en izenean eta ordezkari gisa, jakinarazpenetarako helbidea ……………………………………, eta IFK zk. ………………………., ……………………… karguarekin,

ADIERAZTEN DUT:

Ez nik ez ordezkari nauen erakundeak ez daukagula Diru Laguntza Orokorren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan ezartzen diren diru laguntzen onuradun izateko bateraezintasunik ez debekurik.

Eta hala jasota gera dadin eta behar dituen ondorioak sor ditzan, izenpetzen dut nik, …………….n, 20.……ko ……………………ren ……………n.

Sinatuta:

III. ERANSKINA

**AURREKONTU EREDUA**

**……………………………………… diru laguntzarako aurrekontua**

Nik, ………………………………………… jaunak/andreak, DNI zenbakia ……………………… eta jakinarazpenetarako helbidea …………………………………………………………………., (eskatzailea pertsona juridikoa denean betetzeko),

……………………………………………. en izenean eta ordezkari gisa, jakinarazpenetarako helbidea ………………………., eta IFK zenbakia ……………………, …………………… karguarekin,

Diru laguntza eskaeraren kopurua zehazteko, aurrekontu hau aurkezten dut ……………………………………………… diru laguntza eskatzeko.

artículo 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. (Anexo II).

- ☐ Memoria descriptiva del proyecto en virtud del cual se pretende obtener la subvención.
- ☐ Facturas y documentos justificativos del coste de la actividad o proyecto a subvencionar.
- ☐ (En caso de pagos anticipados) Presupuesto detallado y desglosado de la actuación. (Anexo III).
- ☐ Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. (Anexo IV en el caso de validez de declaración jurada).
- ☐ Declaración de las subvenciones o ayudas que el solicitante hubiese obtenido para la misma finalidad procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales. (Anexo V).

**Documentación requerida cuando el gasto supere la cuantía de 30.000 euros en el supuesto de ejecución de obra, o de 12.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica**

- ☐ Memoria valorada de las obras o proyecto de obras, en su caso; tres presupuestos de diferentes proveedores y justificación en caso de que no se haya elegido la más ventajosa.

ANEXO II

**DECLARACIÓN JURADA DE NO ESTAR INCURSO EN CAUSA DE INCOMPATIBILIDAD PARA LA OBTENCIÓN DE SUBVENCIONES**

Yo, …………………………………………, con número de D.N.I. …………………………… y domicilio a efecto de notificaciones en ………………………………………………………………………….., (a rellenar en el caso de que el solicitante sea una persona jurídica), Actuando en nombre y representación de ………………………….., con domicilio a efecto de notificaciones en ……………………………, y C.I.F. número …………………, como ……………………………,

DECLARO:

Que ni yo ni la Entidad a la que represento estamos incursos en ninguna de las causas de incompatibilidad ni prohibición para la obtención de de la condición de beneficiario de subvenciones establecidas en el artículo 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos lo extiendo yo, en ………………………… a …………… de ………………… de 20.…..

Firmado:

ANEXO III

**MODELO DE PRESUPUESTO**

**Presupuesto para la subvención de …………………………………**

Yo, ………………………………………………, con número de D.N.I. ……………………… y domicilio a efecto de notificaciones en ………………………………………………………………….., (a rellenar en el caso de que el solicitante sea una persona jurídica),

Actuando en nombre y representación de …………………….., con domicilio a efecto de notificaciones en ……………………………, y C.I.F. número …………………, como ……………………………..

Presento el siguiente presupuesto por el que se solicita la subvención de …………………………………, a efectos de determinar la cuantía de la misma.

cve: BAO-BOB-2011a139

**1. gastua**

— Kontzeptua: ......................................................................
— Kopurua: ..........................................................................
— Jaulkitzailea: ....................................................................

**2. gastua**

— Kontzeptua: ......................................................................
— Kopurua: ..........................................................................
— Jaulkitzailea: ....................................................................

**3. gastua**

— Kontzeptua: ......................................................................
— Kopurua: ..........................................................................
— Jaulkitzailea: ....................................................................

**4. gastua**

— Kontzeptua: ......................................................................
— Kopurua: ..........................................................................
— Jaulkitzailea: ....................................................................

GUZTIRA: ..........................................................................................

**Dirubideak**

..........................................................................................................
..........................................................................................................

Zaratamon, ……ko ……………ren ………n

Sinatuta:

**Gasto número 1**

— Concepto: ........................................................................
— Cuantía: ...........................................................................
— Entidad emisora: .............................................................

**Gasto número 2**

— Concepto: ........................................................................
— Cuantía: ...........................................................................
— Entidad emisora: .............................................................

**Gasto número 3**

— Concepto: ........................................................................
— Cuantía: ...........................................................................
— Entidad emisora: .............................................................

**Gasto número 4**

— Concepto: ........................................................................
— Cuantía: ...........................................................................
— Entidad emisora: .............................................................

TOTAL: ...................................................................................................

**Fuentes de financiación**

..........................................................................................................
..........................................................................................................

En Zaratamo, a …… de …………… de …………

Firmado:

IV. ERANSKINA

**ZERGA ZORRETAN ETA GIZARTE SEGURANTZAREKIKOETAN EGUNEAN EGOTEAREN ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA**

Zaratamoko Udalaren Diru Laguntza Orokorren Orenantzaren 7.e) artikuluan ezarritako eginbeharren arabera eta Diru Laguntza Orokorren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Arautegia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.1 eta 24.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrita, nik, ………………………. jaunak/andreak, DNI zk. …………………………. eta jakinarazpenetarako helbidea ………………………………….., (eskatzailea pertsona juridikoa denean betetzeko),

……………………………………………………..en izenean eta ordezkari gisa, jakinarazpenetarako helbidea…………………………, eta IFK zk. …………………………, …………………………………. karguarekin,

ADIERAZTEN DUT:

*Lehena:* ………………………………………………….. xederako eskatutako diru laguntzaren kopurua 3.000 euro baino gutxiagokoa dela.

*Bigarrena:* Zerga zorrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzen egunean nagoela/dagoela ordezkari nauen erakundea.

Eta jasota gera dadin eta gorago aipatutako diru laguntzari dagozkion ondorioak izan ditzan agiri hau izenpetzen dut.

…………n, ………ko …………aren ……n.

Sinatuta:

ANEXO IV

**DECLARACIÓN RESPONSABLE DE ESTAR AL CORRIENTE DE DEUDAS TRIBUTARIAS Y DE LA SEGURIDAD SOCIAL**

En virtud de las obligaciones establecidas en el artículo 7.e) de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Zaratamo y en consonancia con lo establecido en los artículos 22.1 y 24.4 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, yo, ……………………………………………., con número de D.N.I. …………………………y domicilio a efecto de notificaciones en ………………………………….. (a rellenar en el caso de que el solicitante sea una persona jurídica),

Actuando en nombre y representación de ……………………….., con domicilio a efecto de notificaciones en ……………………………, y C.I.F. número ……………………., como …………………………...

DECLARO:

*Primero:* Que la cuantía de la subvención solicitada con el objeto de ………………………………………………….., es inferior a 3.000 euros.

*Segundo:* Que me encuentro/que la sociedad o asociación a la que represento se encuentra al corriente en el pago de las deudas tributarias y cuotas a la Seguridad Social.

Y para que conste y produzca los efectos oportunos en lo que a la subvención antedicha se refiere, firmo el presente documento,

En ……………, a …… de …………………… de ………

Firmado:

V. ERANSKINA

**FINANTZAKETAREN ERANTZUKIZUN ADIEAZPENA**

Nik, …………………………………………… jaunak/andreak, DNI zk. ……………………… eta jakinarazpenetarako helbidea ……………………………………………………, (eskatzailea pertsona juridikoa denean betetzeko)

ANEXO V

**DECLARACIÓN RESPONSABLE DE FINANCIACIÓN**

Yo, ……………………………………………, con número de D.N.I. ………………………y domicilio a efecto de notificaciones en ……………………………………………………… (a rellenar en el caso de que el solicitante sea una persona jurídica),

cve: BAO-BOB-2011a139

……………………………………………………..en izenean eta ordezkari gisa, jakinarazpenetarako helbidea ……………………….., eta IFK zenbakia ……………., …………………………. karguarekin,

ADIERAZTEN DUT:

*Lehena:* Ez dudala jaso/eskatu Zaratamoko Udalak emandako diru laguntzarekin bateraezina den funtsik.

*Bigarrena:* Zaratamoko Udalak emandako diru laguntzarekin bateragarriak diren funts edo laguntza hauek jaso/eskatu ditudala:

| Diru l. | Erakundea | Kontzeptua | Eskatutako kopurua | Emandako edo jasotako kopurua |
|---|---|---|---|---|
| 1.a | | | | |
| 2.a | | | | |
| 3.a | | | | |
| 4.a | | | | |
| 5.a | | | | |

*Hirugarrena:* Diru laguntza eskatu zen …………….. helbururako erabili direla bigarren adierazpenean azaltzen diren funtsak.

Eta jasota gera dadin eta gorago aipatutako diru laguntzari dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau izenpetzen dut.

Zaratamon, 2011ko ekainaren 21ean.—Alkatea, Jon Ajuria Fisure

(II-5535)

Actuando en nombre y representación de ……………………..., con domicilio a efecto de notificaciones en ……………………, y C.I.F. número ……………………, como ……………………….

DECLARO:

*Primero:* No haber percibido/solicitado fondo alguno que sea incompatible con la subvención otorgada por el Ayuntamiento de Zaratamo.

*Segundo:* Haber percibido/solicitado los siguientes fondos o ayudas de carácter compatible con la subvención otorgada por el Ayuntamiento de Zaratamo de las siguientes entidades:

| Subv. | Entidad | Concepto | Importe solicitado | Importe concedido o percibido |
|---|---|---|---|---|
| 1.ª | | | | |
| 2.ª | | | | |
| 3.ª | | | | |
| 4.ª | | | | |
| 5.ª | | | | |

*Tercero:* Que los fondos descritos en el declarativo segundo han sido aplicados para la finalidad ………………… para la que se solicitó la subvención.

Y para que conste y produzca los efectos oportunos en lo que a la subvención antedicha se refiere, firmo el presente documento.

En Zaratamo, a 21 de junio de 2011.—El Alcalde, Jon Ajuria Fisure

(II-5535)

## Getxoko Udala

ALKATEGO DEKRETUA 3683/2011

Getxo udal mugarteko Alangoko 21.1. burutzearen unitatean babes ofizialeko 33 etxebizitza sustatzeko espedientea ikusi da.

*Gertaera:* Eusko Jaurlaritzak (Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak) eta Getxoko Udalak lankidetza hitzarmena egin zuten, Euskal Etxebizitza Zerbitzua (Etxebide) erabiltzeko.

*Gertaera:* Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010. 12.21eko bilkura arruntean, 759. zenbakia duen erabakia hartu zuen, aldaraziz hasiera ematea lehiaketaren erregimeneean kostubidezko titulupean udallursailei buruzko azalera-eskubidea eratzeko eta emateko 21.1 Alango EU-an (4-6 partzelak) babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko-eraikitzeko eta ondoren haiek esleitzeko prozedurari.

*Gertaera:* Kontratazioa eraentzen duten pleguen arabera, adjudikaziodunak (azalera-eskuratzaileak) ahalmena du eraikuntza bukatutakoan bakarreko osagaiak eskualdatzeko.

*Gertaera:* Tokiko Gobernu Batzarraren 2011. 04.20ko 204. erabakiaren bidez, xedatu zen Construcciones Olabarri, S.L.ri B-4810982-1 IFKrekin udal-lursailen gainean azalera-eskubidea eratu eta kostu bidez emakidatzea, eta geroztik babes ofizialeko etxebizitzak, erantsiak eta atxikiak (trasteleku eta garajeak) esleitzea Alango-21.1. jardun unean (4-6 lurzatietan) izeneko kontratua adjudikatzea.

*Gertaera:* 2011.06.27an azalera eskubidea Construcciones Olabarri, S.L.ri lagatzeko eskritura sinatu zen, 75 urterako.

*Gertaera:* 2011ko ekainaren 28ko ebazpenaren bidez, babes ofizialeko behin-behineko kalifikazioa eman zitzaien Alangoko 21.1. burutzearen unitateko 4 eta 6 lursailetan kokatutako 33 etxebizitzei.

## Ayuntamiento de Getxo

DECRETO DE ALCALDÍA 3683/2011

Visto expediente para la Promoción de 33 Viviendas de Protección oficial en la Unidad de ejecución 21.1 Alango, término municipal de Getxo.

*Resultando:* Que, entre el Gobierno Vasco (Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente) y el Ayuntamiento de Getxo fue suscrito Convenio de Colaboración para la utilización del Servicio Vasco de Vivienda (Etxebide).

*Resultando:* Que, la Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria de fecha 21.12.10 acordó, con el número 759, la aprobación del inicio del procedimiento en régimen de concurrencia para la constitución y concesión a título oneroso del derecho de superficie sobre terrenos municipales, para la promoción-construcción de viviendas de protección oficial en la U.E. 21.1-Alango (parcelas 4-6) y su posterior adjudicación.

*Resultando:* Que, según se dispone en los Pliegos que rigen la contratación, el adjudicatario – superficiario queda facultado para que una vez concluida la edificación realice la transmisión de los elementos privativos.

*Resultando:* Que, por acuerdo de la Junta de Gobierno Local número 204 de fecha 20.04.11 se dispuso adjudicar a Construcciones Olabarri, S.L., con C.I.F.: B4810982-1 el contrato de constitución y concesión a título oneroso del derecho de superficie sobre terrenos propiedad del Ayuntamiento de Getxo y posterior adjudicación de viviendas de protección oficial anejos vinculados (trasteros y garajes) en la unidad de ejecución 21.1 Alango (Parcelas 4-6).

*Resultando:* Que, con fecha 27.06.11 fue suscrita escritura de cesión del Derecho de Superficie a favor de Construcciones Olabarri, S.L., por un período de 75 años; y,

*Resultando:* Que, por Resolución de fecha 28.06.11 fue otorgada la calificación provisional de protección oficial a las 33 viviendas sitas en las parcelas 4 y 6 de la unidad de ejecución 21.1 Alango.

cve: BAO-BOB-2011a139